

NOLA ERABILI

5. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan lau atal nagusi bereizi ditugu.

MUGAGABEA

03:28

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

IZENORDAINAK ETA ERAKUSLEAK BETI MUGAGABE 05:00

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Bidaia baten xehetasunak azaldu. Gidoian egiten den bezala, laukote bakoitzak, mapa batean, bidaiaria bat antolatuko du, xehetasun guztiak kontuan hartuta. Gero, bidaiaria lau zatitan banatuko da, laukoteko kide bakoitza zati banaz ardura dadin, bakoitzak bere zatia gelakideen aurrean azalduko du.

Zenbatzaileen jolasa

08:28

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

Zenbait aditz berezi

11:18

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

ATAL DRAMATIKO TXIKIAK

Gidoiak irakurri letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.
Gidoien argudioaren laburpena egin. Hau da, gidoien argudioak modu laburrean idatziz eman, haietan gertatzen denaren zergatiak argi agertuz.

Mugagabea zenbait esapidetan

15:03

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

ATAL DRAMATIKO TXIKIAK

Gidoiak irakurri letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.
Gidoien argudioaren laburpena egin. Hau da, gidoien argudioak modu laburrean idatziz eman, haietan gertatzen denaren zergatiak argi agertuz.

Hori guztia egin eta gero, bideoa ikusiko dugu.

OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO

5. GELTOKIA

MUGAGABEA

Euskaldunok gauza ezagun eta zehatzak izendatzeko bezala, ez zehatzak eta ezezagunak izendatzeko ere badugu formula bat. Mugagabea deitzen da.

Hainbat sukaldari etorri da

Badakigu sukaldariak etorri direla; badakigu sukaldari bat baino gehiago etorri dela; baina ez dakigu zenbat sukaldari etorri den.

Sukaldari bat baino gehiago etorri arren, aditza singularrean jarri dugu; baina, jar genezakeen pluralean ere. Euskaraz bi aukerak onartzen dira.

Hainbat sukaldari etorri da.
Hainbat sukaldari etorri dira.

Gainera, izen bereziak mugagabeen deklinatzen ditugu beti.

Nerea eta Mikel.

- NEREA** Oihanerekin geratu naiz, zinemara joateko.
MIKEL Zer ordutan?
NEREA Lauretan.
MIKEL Non?.
NEREA Oñatin.
MIKEL Gasteiztik Oñatira joango zarete?
NEREA Bai, Gasteizen ez dute ematen pelikula hori.
MIKEL Bada, nik Hilarirekin eta Markelekin hitz egin dut, eta Gaztelura joango gara.

IZENORDAINAK ETA ERAKUSLEAK

BETI

MUGAGABE

Nerea, Mike eta Oihane, mendi-mapa handi baten aurrean.

NEREA Zu, Mikel, **gurekin** al zatoz?

MIKEL Ez dakit. Nondik joango zarete?

NEREA Bide **honetatik** goaz. Lehenengo, Goiuritik iturri **honetaraino** joango gara, eta gero, iturritik borda **honetaraino**. Borda **honetan** bazkalduko dugu.

MIKEL Konturatu al zarete, **hemendik** hona, Goiuriko zelaitik pagadi **honetara** sekulako aldapa dagoela?

NEREA Beno, ezagutzen dugu aldapa hori eta gure ustez ez da hainbestekoa.

MIKEL Oihane, zu ere **hauekin** zoaz?

OIHANE Bai, denok goaz **elkarrekin**. Zu ez zatoz ala?

MIKEL Ez dakit, ez dakit iturri **horretarainoko** bidea gogor samarra iruditzen zait. **Zer** ordutan abiatuko zarete?

OIHANE Goizeko seietan.

MIKEL Goizeko seitan? Mila deabru! Erotu egin al zarete? Ordu **horretan** lehenengo ametsean nago oraindik. Goizeko seiak!

NEREA Aizu, Mikel, hemendik Goiurira autoz ordubete behar dugu.

MIKEL Beno, beno, **zenbat** kilometrora dago bada Goiuri?

NEREA Berrogeita hamar kilometrora gutxi gorabehera.

MIKEL Berrogeita hamar kilometrora; alajaina! Pentsatzen nuen hementxe bertan zegoela.

NEREA Gainera, Jon eta Jasone jaso behar ditugu, bakoitza bere etxean.

MIKEL Arranopola! **Zenbat** lagun goaz, bada?

OIHANE Zurekin bost lagun. Ba al zatoz, bai ala ez?
MIKEL Bai, bai; joango naiz. **Zein kaletan** bizi da Jasone?
OIHANE Zuloaga kalean, zer bada?
MIKEL Eta Jon **zein kaletan** bizi da?
OIHANE Jon, Olabe kalean.
MIKEL Zuloaga, Olabe...

Mikelek hiriko kaleen mapa ateratzen du.

MIKEL.- Entzun. Bihar goizean, hemendik kale **honetara** jotzen badugu, eta gero, bidegurutze honetan beste kale hau hartzen badugu semaforo **honetara** iritsiko gara, bost minutuan.

Nerea eta Oihane begira geratu zaizkio.

MIKEL Beraz, deitu Jon eta Jasoneri eta esan bihar goizean seiak eta laurdenetan semaforo honetan egoteko.

Mikelek besoak zabaltzen ditu.

MIKEL Ikusten? Hamar minutu irabazi dugu. Hamar minutu oherako.

Bi neskek, Oihanek eta Nereak erremediorik ez duela adierazten duen keinua egiten diote.

MIKEL Zer? Hamar minutu, hamar minutu dira.

Zenbatzaileen jolasa

Badakizue zenbatzaileak bi eratakoak izan daitezkeela. Zehaztuak eta Zehaztugabeak.

Zenbatzaile zehaztuak:

bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, ...

Zenbatzaile zehaztugabeak:

hainbat, zenbait, batzuk, gutxi, makina bat, ...

Zenbatzaile zehaztuekin ere mugagabea erabiltzen da, baina ez beti. Izan ere, zenbatzaile zehaztuekin forma biak erabil daitezke, mugatua edo mugagabea. Hori bai, esanahiaren aldetik bada alderik.

Hiru mendietan.

Hiru mendietan, mugatu plurala da. Esaldiko hiru mendiak ezagunak dira, denok dakigu zein mendi diren. Demagun hiru handiez ari garela, denok dakigu hiru handien ibilaldiak Gorbeia, Anboto eta Aizkorri mendiak iragaten dituela.

Hiru menditan.

Hiru menditan, mugagabea da. Ez dakigu zein mendi diren. Demagun altxorren bila jolastu nahi dugula. Hiru altxor dauzkagula eta altxor bakoitza mendi baten jarriko dugula. Gauzak horrela, hiru altxorrak hiru menditan daudela esango genuke.

Nerea, Mikel ; mahai ganean liburu mordoa.

OIHANE Entzun, Mikel. Mahai gaineko **bost liburutan** pago hosto bana ipini dut.

MIKEL Ongi da. Bost liburutan. Eta, nik, **bost liburuak** aurkitu behar ditut.

OIHANE Bai.

MIKEL Zenbat denbora daukat horretarako?

OIHANE Minutu bat.

MIKEL Ados.

Oihanek eskuan kronometroa dauka.

OIHANE Prest al zaude, Mikel?

MIKEL Bai, prest nago.

OIHANE Ea, bada: bost, lau, hiru, bi, bat... ekin.

*Bost liburutan, mugagabea da ez dakigulako zein liburu diren.
Bost liburuak, mugatua da pago hostoa duten liburuak direla badakigulako.*

Nerea eta Mikel liburu artean.

NEREA Ez dakit zer egin **hainbeste libururekin**.

MIKEL Niri ere gauza bera gertatzen zait. **Hamaika liburu** daukat.

NEREA Hainbat ikaslek gustura hartuko luke.

MIKEL Hainbat ikaslek ez dakit baina **hainbat gurasok** bai.

NEREA Bai, urtero **makina bat** diru joaten da liburutan.

MIKEL Zenbait **gurasorekin** hitz egin dut egun hauetan eta, ez daude, ez, oso pozik.

NEREA Dena dela, **liburutan** egindako gastua, gastua baino gehiago, inbertsioa da, nire ustez.

ZENBAIT ADITZ BEREZI

Badira euskal aditz batzuk mugagabea eskatzen dutenak. Horrela jokatzeko joera duten aditz guztiak aurkeztea luze joko lukeelako, ohikoenak bakarrik aurkeztuko dizkizuet.

OIHANE Jesus delakoak ura **ardo bihurtu** omen zuen.
MIKEL Ez dakit oso ideia ona izan zen. Osasunerako hobe ura ardoa baino?

Ura ardo bihurtu

NEREA Harriak **urre bilakatzeko** makina asmatuko zuela uste zuen.
MIKEL Amets egitea ongi dago, baina neurrian.

Harriak urre bilakatu

NEREA Patxi **aita egin** dute.
MIKEL Hara! Beraz, zu **izeba egin** zaituzte.

Aita egin

Izeba egin

OIHANE Simon **zinegotzi hautatu** dute.
NEREA Eta Gorka museoko **zuzendari izendatu** dute.

Zinegotzi hautatu

Zuzendari izendatu

OIHANE Entzule egoten naiz Xabierren klaseetan.
MIKEL Ni **kale-garbitzaile joango** naiz hirira.

Entzule egon

Kale-garbitzaile joan

Bidali, kontratatu eta hartu. Horra hor hiru aditz polit, mugagabea eskatu behi dutenetakoak. Ea asmatzen dituzuen hiru esaldi polit.

BIDALI

KOTRATATU

HARTU

Dena dela, kontuz ibili forma hauekin eta ez nahastu prolatiboarekin. Prolatiboa zer den? Prolatiboa deklinabide-kasu bat da. Gure artean, prolatiboa NORTZAT kasua da.

Oihane eta Nerea kalean.

- OIHANE** Hara, Nerea, ez dakizu zer gertatu zaidan gaur goizean.
NEREA Ez, ez dakit, ba; kontatu, kontatu.
OIHANE Mirutegia telebistan **aktore hartu** naute.
NEREA Ez da izango. Zorionak! Oihane.
OIHANE Eskerrik asko, Nerea.
NEREA Ba, niri, gaur goizean, badakizu zer gertatu zaidan?
OIHANE Ez, ez dakit; zer gertatu zaizu?
NEREA Azokara joan naiz eta andere batek **aktoretzat hartu** nau.

Aktore hartu, aktore lana egiteko hartu. *Aktoretzat hartu*, aktore baten itxura hartu, aktore batekin nahastu. Hainbat aditz-lokuziotan izena mugagabeen joaten da.

Oihane, Mikel eta Nerea kalean.

OIHANE Goazen etxera, gose eta egarri naiz eta.
NEREA Itxaron apur bat, hitz eman dit etorriko dela.
OIHANE Nerea, mesedez, ordu bat daramagu. Amore eman neska.
MIKEL Gauza bat esan behar dizut, Nerea.
NEREA Zer, Mikel.
MIKEL Honek min emango dizu, baina, entzun behar duzu.
OIHANE Itxaron, Mikel, nik esango diot...
MIKEL Zergatik?
OIHANE Asto bat zarelako eta beldur naiz...
NEREA Urduri nago, zer esan behar didazue?
OIHANE Hara, neska, gu lagunak gara, ezta? Elkarrekin lo egin dugu askotan, askotan barre egin dugu elkarrekin, negar ere egin dugu elkarrekin...
MIKEL Beno, beno, beno... Hori da teknika, hori! Esan, eta kito!
NEREA Baina, zer esan behar didazue?

MUGAGABEA ZENBAIT ESAPIDETAN

Leku-denborazko kasuetan deklinatzerakoan zenbait hitzek Mugagabea hartzen dute. Batez ere, isurkiak edo likidoak izaten dira, baina badira bestelako hitzak ere.

OIHANE Uretara noa.
NEREA Uretara?
OIHANE Bai, uretara. Bainutxo bat hartuko dut. Berehala nator.
MIKEL Kontuz ibili **uretan**, Oihane. Sugeak dabilta.
OIHANE Lasai, Mikel, zu ez kezkatu, Tarzani deituko diot.

Uretara noa.

Kontuz ibili **uretan**.

NEREA Ez dakit, Mikel, hodei horiek ez zaizkit gustatzen; biharko ibilaldia **euritan** egin beharko dugula uste dut.
MIKEL Euritan? Zuk uste? Zakurraren putza, ez dut zamarrarik ekarri, ez eta euritakorik ere.

Ibilaldia **euritan** egin beharko dugu

MIKEL Beno, hidratoak esnetan jarri ditut. Bi minutu barru bigun-bigun egongo dira.

Hidratoak esnetan jarri ditut.

OIHANE Ño! Beroa dago. **Izerditan** jarri naiz.
NEREA Bai, beroa dago. Aizu, Oihane erreka ura hotza al zegoen?
OIHANE Ez zegoen beroa.

Izerditan jarri naiz.

NEREA Mikel, zer egin duzu eskuan? **Odoletan** daukazu.
OIHANE Odoletan? Zer?
MIKEL Ez da ezer, txorizo zati bat ebakitzen ari nintzela ebaki txiki bat egin dut atzamarrean, eta odoletan jarri zait.
OIHANE Ai, zorabiatuko naiz.
NEREA Bada, ez begiratu odoletara. Zoaz aire freskoa hartzera.

Eskua odoletan daukazu

OIHANE Arratsalde zoragarria daukagu, adiskideak.
OIHANE Lotan zaudete, ala? Ez dituzue izarrak ikusi nahi?
MIKEL Oihane, mesedez, zatoz lotara. Bihar goiz jaiki behar dugu eta.
OIHANE Banoa, banoa, baina gauaz gozatu nahi dut, ametsetan hasi aurretik. Nerea, lotan al dago?
NEREA Bai, lotan nago. Lotan baino gehiago, **ametsetan** nengoen; ametsa izorratu didazu, Oihane. Sartu lotara.

Lotan zaudete, ala?

Lotan baino gehiago, ametsetan nengoen.

OIHANE Hain ongi nago hemen, **belarretan, eguzkitan...**
MIKEL Mikel, arren, prestatuko al duzu gosaria nire ordezt?
MIKEL Ez Oihane, ez. Ni **belarretara** noa, **eguzkitara**, egunsentiaz gozatzera.
OIHANE. Eta zuk, Nerea? Egingo didazu mesedea?
NEREA Ez Oihane, ez. Zatoz **belarretatik** kanpin dendara, **eguzkitatik itzaletara**, eta prestatu gosaria. Nik ere eguzkitara joan nahi dut, egunsentiaz gozatzera.

Hain ondo nago hemen, belarretan.

Belarretara noa, eguzkitara.

Zatoz eguzkitatik itzaletara.

OIHANE Esnea **sutan** dagoen bitartean, ogi errea prestatuko dut. Ogia eta gurina behar ditut, alde batetik; eta labana eta zartagina, bestetik. Has gaitezen.

Esnea sutan dago.

NEREA Erre usaina dago.
MIKEL Bai, erre usaina dago.
NEREA O! Ez! Gure ogi errea **ketan**.

Ogi errea ketan dago.

NEREA Iturria, iturria... ikus dezagun non dagoen iturria... hemen. Uaoh!
Lekutan dago. Landazurin dago iturria. Hemendik hiru ordutara.
MIKEL Hiru ordutara? Eta lekutan dagoela diozu? Lekutan? **Pikutan** dago eta.
OIHANE Zer moduz doa antolakuntza hori?
NEREA Ongi. Dena kontrolpean daukagu. Non egon zara?
OIHANE Gailur txiki horretara joan naiz, berotze ariketak egitera.
NEREA Haraino?
OIHANE Bai, muino horretaraino.
NEREA **Tokitaraino** joan zara, neska.

Lekutan dago iturria.

Pikutan dago iturria.

Tokitaraino joan zara, neska.

NEREA Adiskideak, dauzkagun botila guztiak bete behar ditugu. Hiru ordu daukagu hurrengo iturriraino.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:
Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com